



Kazetarien Euskal Elkargoak eta Euskal Kazetarien Elkarteak Pikara Magazine aldizkariak bere egoitzan jasandako erasoak salatzen dute

KEE-CVP-k eta EKE-AVP-k Pikara Magazine aldizkariak eta beste erakunde batzuk goiz honetan euren Bilbo Zaharreko Enparantzako egoitzetan jasandako pintada faszista eta antifeministak gaitzesten dituzte.

EAEko kazetaritza arloko bi erakunde profesional nagusiek adierazpen askatasuna eta hedabideak indarkeriarik gabe libreki informatzeko eskubidea urratzen dituzten erasoak salatu nahi dute.

'Pikara Magazine' aldizkari digitalak, aurten Kazetaritza Digitala Saria jasoko duena Euskal Kazetaritza Sarien 2019ko ekitaldian teoria eta praktika feministaren dibulgazioagatik, eta hedabideetan kazetaritza lanaren sorkuntzan genero ikuspegia eransten duena, jasandako erasoak salatu du eta, bide batez, gaur arratsaldean egoitza berriz pintatzeko ekintzara deitu du.

Kazetarien Euskal Elkargoak eta Euskal Kazetarien Elkarteak garbi adierazi nahi dute jokabide hauek demokraziaren irizpideen aurka doazela. Izan ere, informazio eskubidea herritarren oinarrizko eskubidea da eta Espainiar Konstituzio bertan jasota dago.

EAEko kazetaritza arloko bi erakunde profesional nagusiek gogoratu nahi dute gizartea libreki informatzeko eta iritzi publikoa eraikitzen laguntzeko informazioa zabaltzea oinarrizko eskubide demokratikoa dela eta jarrera autoritario eta antidemokratikoetan aurre izango dituztela.

KEEk eta EAEk babesa luzatu nahi diete Pikara Magazine eta kaltetuak izan diren komunikabide eta profesional guztiei, eta haienganako errespetu osoa eskatzen dugu.

Pikara Magazinek zabalduko jakinarazpena hurrengo estekan eransten dugu:

<https://www.pikaramagazine.com/2019/10/no-limpiamos-fascismo-lo-pasamos/>